

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMAIAKO UDALA

Zumaiako Emakumeon Etxeko antolakuntza eta funtzionamendu araudiari behin betiko onarpena ematea.*

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Zumaiako Emakumeon* Etxeko antolakuntza eta funtzionamendu araudiari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 30ean erabakitako aldaketak jendaurrean jartzeko epearen barruan alegaziorik aurkeztu ez denez (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 75. zk., 2023ko apirilaren 20koa), behin betiko bihurtu da, automatikoki, Zumaiako Emakumeon* Etxeko antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren hasierako osoko bilkuraren erabakia. Erabaki horren testu osoa argitaratu ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta adierazten da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

Eta guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan diztan argitaratzen da hau. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, beste edozein errekurtso ere aurkez daiteke.

Onartutako araudiaren testua honako hau da:

HITZAURREA

Dokumentu honen helburua da Zumaiako Emakumeon* Etxea zerbitzu publiko eta komunitarioaren funtzionamendua arautzea. Proiektu estrategikoa da Zumaiako herriarentzat.

Emakumeon* Etxearen helburuak dira emakume guztientzat elkartzeko erreferentziatzeko leku bat izatea, bizitzako arlo guztietan, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra xede duten politika, programa eta proiektuetan eragin eta parte har dezaten, emakumeon* ahalduntzea bultzatzea eta emakumeon* kontrako indarkeriaren prebentziorako, detekziorako, deribaziorako eta osatzeko gaitasun handiko ekipamendua izatea.

Helburu horiek lortzeko espazio dinamikoa eta irekia sortuko du, eta bertan, elkartuko dira Zumaiako emakume elkartek zein norbanakoak eta mugimendu feminista. Guztientzat izango da espazio anitza, plurala, segurua eta askatasuneko: ikasteko, prestakuntza eta informazioa jasotzeko baliatuko dena; jabetuntza sareak sortzeko; emakumeon* ahalduntzea, partaidetza eta presentzia sustatzeko; ikuspegi feministatik eztabaida eta gogoeta pizteko; indarkeria matxistatik gabeko elkarbizitza sustatzeko, era askotako aholkularitza jasotzeko: juridikoa, lan munitzako, erregulartasun administratiboa, sexuala.

AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Aprobar definitivamente el reglamento de organización y funcionamiento del Zumaiako Emakumeon Etxea.*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 30 de marzo de 2023, acordó aprobar inicialmente el reglamento de organización y funcionamiento del Zumaiako Emakumeon* Etxea.

No habiéndose presentado alegación alguna dentro del plazo de exposición pública de las modificaciones acordadas por Pleno de 30 de marzo de 2023, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 75 de 20 de abril de 2023, queda automáticamente elevado a definitivo el Acuerdo plenario inicial aprobatorio, del reglamento de organización y funcionamiento del Zumaiako Emakumeon* Etxea cuyo texto íntegro se hace público, para su general conocimiento y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, señalando que la misma entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lo que se publica para su general conocimiento y efectos, señalando que el presente acuerdo agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se tenga por conveniente.

El texto del reglamento aprobado es el siguiente:

PRÓLOGO

El presente documento tiene por objeto regular el funcionamiento del servicio público y comunitario Zumaiako Emakumeon* Etxea. Es un proyecto estratégico para el pueblo de Zumaia.

Los objetivos de la Emakumeon* Etxea son: ser un lugar de referencia para el encuentro de todas las mujeres, en todos los ámbitos de la vida, con el fin de que incidan y participen en políticas, programas y proyectos que persigan la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres, impulsar el empoderamiento de las mujeres y contar con un equipamiento de alta capacidad de prevención, detección, derivación y complementación de la violencia contra las mujeres.

Crearé un espacio dinámico y abierto para la consecución de estos objetivos, en el que confluirán tanto las asociaciones de mujeres de Zumaia como las individuales y el movimiento feminista. Habrá un espacio plural para todas, seguro y de libertad que servirá para aprender, formarse e informarse; crear redes de empoderamiento; promover el empoderamiento, la participación y la presencia de las mujeres; suscitar el debate y la reflexión desde una perspectiva feminista; promover una convivencia libre de violencia machista, recibir asesoramiento diverso: jurídico, laboral, regularidad administrativa, sexual.

Egiteko forma bereziak ditu, eta ez da «asistentziazko» baliabide bat. Emakumeon* Etxeak hiru kontzepturen arteko oreka bilatu nahi du: Prebentzioa-Arreta-Aldarrikapena.

Dokumentuan, * ikurra erabiltzen da beste identitateak barne daudela adierazteko.

I. KAPITULUA

DEFINIZIOA, HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

1. artikulua. Definizioa.

Emakumeon* Etxea Zumaiako Udalak eta Zumaiako Emakumeon* Etxea elkarteak elkarrekin kudeatutako zerbitzu publiko-komunitarioa da, non mugimendu feministaren aldarrikapenaren bidez, emakumeentzako* espazio propio baten beharrari erantzuteko sortu zen, 2018an (orduan egin zen zerbitzuaren definizioa).

2. artikulua. Helburuak.

- Emakumeon* ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- Gune irekia izatea: norbanako nahiz berdintasunaren aldeko talde eta elkarteentzako topagune izatea.

3. artikulua. Ezaugarriak.

Helburu horiek betetzeko, espazio dinamikoa eta irekia sortuko dugu, eta bertan elkartuko dira Zumaiako elkarteak zein norbanakoak. Guztientzat izango da espazio anitza, plurala eta askatasunekoa: ikasteko, prestakuntza eta informazioa jasotzeko baliatuko dena; jabeak sortzeko, emakumeon ahalduntzea, partaidetza eta presentzia sustatzeko, ikuspegi feministatik eztabaida eta gogoeta pizteko; indarkeria matxistatik gabeko elkarbizitza sustatzeko, era askotako aholkularitza jasotzeko: juridikoa, lan munduratzeko, erregulartasun administratiboa, sexuala...

II. KAPITULUA

PRINTZIOPIOK ETA JARDUERA ILDOAK

4. artikulua. Printzipioak.

Zumaiako Emakumeon* Etxeak dituen printzipioak honakoak dira: eraldatzailea, abangoardiakoa, anitza, berritzailea, hezigarria, solidarioa, alderdikierarik gabea, parte-hartzailea, independentea, eragilea, autonomoa, bizia, laikoa, zabala eta berezia.

5. artikulua. Jarduera ildoak.

- Emakumeen* parte-hartzea eta elkartegintza sustatzea, bizitzako arlo guztietan, norbanako jabeakuntzatik kolektibora.
- Eraldaketa soziala eta feminista lortzeko jarduera estrategikoak bultzatzea.
- Emakume talde eta elkarte anitzen arteko elkarlana sustatzea.
- Emakumeen bizi baldintzak ez ezik, gizartean duten presentzia hobetzearen alde lan egitea.
- Berdintasunaren inguruko prestakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea.
- Berdintasun alorreko ikerkuntza, berrikuntza eta ikuspuntu berriak sortzearen alde egitea.

Tiene formas especiales de hacer y no es un recurso asistencial. Emakumeon* Etxea busca el equilibrio entre tres conceptos: Prevención-Reivindicación-Atención.

En el documento se utiliza el símbolo* para indicar que hay otras identidades incluidas.

CAPÍTULO I

DEFINICIÓN, OBJETIVOS Y CARACTERÍSTICAS

Artículo 1. Definición.

Emakumeon* Etxea es un servicio público-comunitario gestionado conjuntamente por el Ayuntamiento de Zumaiako y la asociación Zumaiako Emakumeon* Etxea, que nace con la reivindicación del movimiento feminista para dar respuesta a la necesidad de un espacio propio para las mujeres* en 2018 (entonces se hizo la definición del servicio).

Artículo 2. Objetivos.

- Empoderamiento y participación sociopolítica de las mujeres*.
- Igualdad de mujeres y hombres.
- Ser un espacio abierto: un punto de encuentro para colectivos y asociaciones individuales y por la igualdad.

Artículo 3. Características.

Para cumplir estos objetivos, crearemos un espacio dinámico y abierto en el que confluirán tanto las asociaciones de Zumaiako como mujeres a nivel individual. Será para todas un espacio libre y plural que sirva para aprender, formarse e informarse, crear redes de empoderamiento, promover el empoderamiento, la participación y la presencia de las mujeres, para fomentar el debate y la reflexión desde la óptica feminista; para promover una convivencia libre de violencia machista, para recibir asesoramiento jurídico, laboral, regularidad administrativa, sexual...

CAPÍTULO II

PRINCIPIOS Y LÍNEAS DE ACTUACIÓN

Artículo 4. Principios.

Los principios de la Emakumeon* Etxea son: transformadora, vanguardista, plural, innovadora, educativa, solidaria, no partidista, participativa, independiente, motor, autónoma, viva, laica, diversa y singular.

Artículo 5. Líneas de actuación.

- Fomentar la participación y el asociacionismo de las mujeres* en todos los ámbitos de la vida, desde el empoderamiento individual al colectivo.
- Impulsar actuaciones estratégicas para la transformación social y feminista.
- Fomentar la colaboración entre múltiples grupos y asociaciones de mujeres.
- Trabajar por mejorar las condiciones de vida de las mujeres y su presencia en la sociedad.
- Promover la formación, sensibilización e información en materia de igualdad.
- Favorecer la investigación, la innovación y la creación de nuevos enfoques en materia de igualdad.

III. KAPITULUA

ESPAZIOEN BANAKETA ETA ERABILERA

6. artikulua. Erabiltzaileak.

Edozein elkarte, kolektibo, entitate edo emakumek* erabil ahal izango du Etxea, betiere helburu nagusia baden berdintasuna sustatzea edo lortzea eta Etxearen printzipioei jarraitzen badie.

Etxearen erabiltzaileak emakumeak* izango dira eta etxean antolatutako «saio irekietan» onartuko dira bakarrik gizonak, ulertzen dugulako sentsibilizazio lanerako baliagarria izango dela, kontuan izanda Etxearen helburu nagusitako bat dela gizarte berdintzea lortzea.

7. artikulua. Espazioen deskribapena.

Zumaiaiko Emakumeon* Etxea lokala San Telmo kalea 19n dago. Martxoaren 8a plazan du sarrera nagusia.

7.1. Espazioak:

Harrera gunea: Dinamizatzaileak lan egiteko bulegoa izango da. Lehenengo harrera egiteko tokia izango da.

– Areto nagusia: ikastaro, hitzaldi eta ikuskizunetarako izango da. Erabilera anitzeko gela.

– Biltegi 1: Elkartearen materiala, Etxeko baliabideak eta tailer desberdinetako materiala bertan jasoko da.

– Biltegi 2: Elkarte eta talde desberdinek materiala gordezteko lekua izango da. Bertan, internet zerbitzua ordenagailuarekin eskainiko da.

– Aholkularitza gela (goian): emango diren aholkularitza eta zerbitzuak eskaintzeko leku goxo eta diskretua izango da. Hala ere, bestelako erabileretarako ere baliagarria izango da.

– Tailer gela (goian): formatu txikiko tailerrak eta ikastaroak egiteko erabiliko da eta elkarte desberdinentzako bilera gela ere izango da.

– Sukaldea: tailerrak egiteko eta bestelakoak egiteko oso baliagarria izango da.

– Igogailua: honek egiten du irisgarritasuna bermatzea. Giltzaren bitartez kudeatuko da.

7.2. Aforoak:

Etxeak dituen espazioen aforoak honakoak dira:

– Herreran: 4 pertsona.

– Biltegi 1: 0,13 pertsona.

– Biltegi 2: 0,35 pertsona.

– Eskailerak: 5 pertsona.

– Komuna: 3 pertsona.

– Garbiketa biltegia: 0,08 pertsona.

– Sukalde aurreko tailerra: 13 pertsona.

– Banaketa (Pasilua): 14 pertsona.

– Gela erabilera anitza: 28 lagun.

– Goiko eskaileretan: 13 pertsona.

– Sarreran 6 pertsona.

– Bulegoan: 7 pertsona.

– Bilera gelan: 12 pertsona.

7.3. Garbiketa:

Etxearen garbiketa orokorra Udalaren ardura izango da sukaldeko tresneria izan ezik.

CAPÍTULO III

DISTRIBUCIÓN Y UTILIZACIÓN DE ESPACIOS

Artículo 6. Usuarios.

La Emakumeon* Etxea podrá ser utilizado por cualquier asociación, colectivo, entidad o mujer*, siempre que su objetivo principal sea promover o alcanzar la igualdad y se ajuste a los principios de la Casa.

Las personas usuarias de la Emakumeon* Etxea serán mujeres* y en las sesiones abiertas organizadas en la casa se admitirá a los hombres únicamente, porque entendemos que servirá para el trabajo de sensibilización, teniendo en cuenta que uno de los objetivos principales de la Casa es la consecución de una sociedad igualitaria.

Artículo 7. Descripción de los espacios.

El local Emakumeon* Etxea de Zumaia está ubicado en la calle San Telmo 19. Su entrada principal está en la plaza 8 de marzo.

7.1. Espacios:

Recepción: Será una oficina de trabajo para dinamizadoras. Será el lugar de la primera recepción.

– Salón de actos: destinado a cursos, conferencias y espectáculos. Sala polivalente.

– Almacén 1: donde se recogerá el material de la Asociación, los recursos de la Casa y el material de los diferentes talleres.

– Almacén 2: Será el lugar donde diferentes asociaciones y grupos guarden el material. Allí se ofrecerá el servicio de internet con ordenador.

– Aula de asesoramiento (arriba): será un lugar dulce y discreto para ofrecer el asesoramiento y los servicios que se van a prestar. No obstante, también será válido para otros usos.

– Aula taller (arriba): destinada a talleres y cursos de pequeño formato y sala de reuniones para diferentes asociaciones.

– Cocina: Será muy útil para realizar talleres y otros.

– Ascensor: para que hace que se garantice la accesibilidad. Se gestionará mediante llave.

7.2. Aforos:

Los aforos de los espacios de la casa son los siguientes:

– Acogida: 4 personas.

– Almacén 1: 0,13 personas.

– Almacén 2: 0,35 personas.

– Escaleras: 5 personas.

– Baño: 3 personas.

– Almacén de limpieza: 0,08 personas.

– Taller pre-cocina: 13 personas.

– Reparto (Pasillo): 14 personas.

– Multiusos de aula: 28 personas.

– Escaleras altas: 13 personas.

– 6 personas en la entrada.

– Oficina: 7 personas.

– Sala de reuniones: 12 personas.

7.3. Limpieza:

La limpieza general de la casa correrá a cargo del Ayuntamiento a excepción del menaje de cocina.

IV. KAPITULUA

ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

8. artikulua. *kudeaketa mota.*

Zumaiako Emakumeon* Etxea elkarteak Udalarekin batera kudeatuko du Etxea. Nolanahi ere, kudeaketa eredu modura egokitzat jo da Kogestio sistema erabiltzea, Etxearen definizioan jaso zen bezala. Sistema horren baitan, Udalak Emakumeon* Etxeko elkartearekin hitzarmena sinatuko du urtero.

9. artikulua. *Etxearen funtzionamendu organoak.*

9.1. Kogestio organoa.

9.1.1. Kideak:

Kogestio organoaren kideak Berdintasun zinegotzia, Elkar-teko bi ordezkari, Berdintasun Foroko ordezkari bat, Elkartearen dinamizatzailea eta Udal Berdintasun teknikaria izango dira.

9.1.2. Funtzionamendua:

Erabakiak kontsentsuaren bitartez hartuko dira. Muturreko kasuetan, botoaren bitartez egingo litzateke, eta kide guztiek izango dituzte ahotsa eta botoa, Elkartearen dinamizatzaileak izan ezik, ahotsa bakarrik izango duela. Baliozko bilerak izateko gutxienezko Quoruma honakoa izango da: Elkarteko ordezkari batek, Etxeko dinamizatzaileak, Berdintasun zinegotziak eta Berdintasun Teknikariak parte hartzen badute bileran.

9.1.3. Eginkizunak:

- Urteko plangintza osatu.
- Etxearen egutegia eta ordutegia adostu eta onartu.
- Emakumeon* Etxearentzat ezarritako irizpideak betetzen ari diren aztertu, Etxearen funtzionamendu egokirako.
- Emakumeon* Etxearen hitzarmenak aztertu, ezagutzera eman eta jarraipena egin.
- Emakume elkarteek, taldeek edo norbanakoek eginiko eskaerak aztertu eta onartu.
- Bertan, eskainitako ekintza eta zerbitzuen antolaketa adostu eta horien funtzionamendua ebaluatu.
- Emakumeon* Etxearen jarduerak dagokion diru iturria izateko lan egin.
- Estrategikoak diren lan ildoen garapena proposatu.
- Deialdia dinamizatzaileak egingo du, gutxienez hiru egun lehenago, eta Elkar-teko eta Udalak proposatutako gaiak sartuko ditu. Akta ere dinamizatzaileak jasoko du.

– Erabakiak denok adostuta hartuko dira.

9.1.4. Biltzeko maiztasuna:

Urtean 4 aldiz bilduko da udala eta talde eragilea. Beharra baldin badago gai jakin bati heltzeko ez ohiko kogestio bilera deituko da. Deialdia dinamizatzaileak egingo du (kogestio organoaren kideon ekarpenekin) eta gutxienez 2 egun lehenago bidaliko du.

9.2. Koordinazio mahaia.

9.2.1. Kideak:

koordinazio mahaian, parte hartuko dute honakoek: elkar-teko ordezkari batek, dinamizatzaileak eta Udaleko Berdintasun teknikariak.

9.2.2. Helburuak:

Bi erakunderen artean, Koordinazio Mahaia osatuko da, kudeaketaren eraginkortasuna eta jarraipena errazteko.

CAPÍTULO IV

ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN

Artículo 8. *Tipo de gestión.*

Zumaiako Emakumeon* Etxea gestionará la Casa en colaboración con el Ayuntamiento. No obstante, como modelo de gestión se ha considerado adecuado utilizar el sistema de Cogestión, tal y como se recogió en la definición de la Casa. Dentro de este sistema, el Ayuntamiento firmará anualmente un convenio con la asociación Emakumeon* Etxea.

Artículo 9. *Órganos de funcionamiento de la Casa.*

9.1. Órgano de cogestión.

9.1.1. Vocales:

Las participantes del órgano de Cogestión serán la concejala de Igualdad, dos representantes de la Asociación, una representante del Foro para la Igualdad, la dinamizadora de la Asociación y la Técnica de Igualdad municipal.

9.1.2. Funcionamiento:

Las decisiones se tomarán a través del consenso. En los casos extremos, se haría a través del voto y todas sus miembros tendrán voz y voto, excepto la dinamizadora de la Asociación, que sólo tendrá voz. El quórum mínimo de reuniones válidas será el siguiente: Si participan en la reunión una representante de la Asociación, la dinamizadora del Hogar, la concejala de Igualdad y la Técnica de Igualdad.

9.1.3. Funciones:

- Elaborar la planificación anual.
- Acordar y aprobar el calendario y horario del hogar.
- Analizar si se están cumpliendo los criterios establecidos para el Hogar de las Mujeres para el buen funcionamiento de la Casa.
- Análisis, difusión y seguimiento de los convenios de la Casa.
- Analizar y aceptar las solicitudes de asociaciones de mujeres, grupos o personas individuales.
- Consensuar la organización de las acciones y servicios ofrecidos y evaluar su funcionamiento.
- Trabajar para que las actividades de la casa sean la fuente de enriquecimiento para las mujeres.
- Proponer el desarrollo de líneas de trabajo estratégicas.
- La convocatoria será realizada por la dinamizadora con una antelación mínima de tres días e incluirá los temas propuestos por la Asociación y el Ayuntamiento. El acta también será recogida por la dinamizadora.

– Las decisiones se tomarán de común acuerdo.

9.1.4. Frecuencia de recogida:

Se reunirá 4 veces al año el ayuntamiento y el grupo motor. En caso de necesidad se convocará una reunión de cogestión extraordinaria para abordar un tema concreto. La convocatoria será realizada por la dinamizadora (con las aportaciones de las participantes del órgano de cogestión) y enviada con una antelación mínima de 2 días.

9.2. Mesa de coordinación.

9.2.1. Vocales:

En la mesa de coordinación participarán una representante de la asociación, la dinamizadora y la técnica de Igualdad del Ayuntamiento.

9.2.2. Objetivos:

Se constituirá una Mesa de Coordinación entre las dos entidades para facilitar la eficacia y el seguimiento de la gestión.

9.2.3. Funtzionamendua:

Astero egingo dute bilera.

9.3. Zumaiaiko Emakumeon* Etxea elkartea.

9.3.1. Kideak:

Elkartearen kideak izango dira Emakumeon* Etxeko bazkideak.

9.3.2. Helburuak:

– Zumaiaiko Emakumeon* Etxearen kudeaketa orokorra Udalarekin batera egin.

– Udalarekin batera eginiko kudeaketa hori Kogestio Sistema ereduaren bitartez egin.

– Parte-hartze bidezko kudeaketa lortu, bazkide diren emakumei irekita.

– Emakumeen ahalduzko prozesuak sustatu edo erraztu, ekintza feministen bitartez.

– Udalerriko Berdintasun politiketan eragin.

– Berdintasun Foroan parte hartu.

– Aliantzak eta sare feministak eraiki.

9.3.3. Talde eragilea:

Elkartearen funtzionamendua eta Etxearen kudeaketaz arduratuko da. Elkarteko bazkide batzuek osatuko dute. Bazkide asanbladan prestatu eta bertan hartutako erabakien jarraipena eta kudeaketaz arduratuko da. Horrez gain, helburuen betetze, komunikazioa landu, programazioa zehaztu...

9.3.4. Elkartearen Asanblada:

9.3.4.1. Kideak:

Elkarteko bazkideek hartuko dute parte.

9.3.4.2. Eginkizunak:

Asanblada izango da elkartearen erabakimen ahalmen nagusia izango duen organoa.

9.3.4.3. Helburuak:

– Urteko plangintza onartu.

– Helburuen jarraipena egin.

– Aldaketak proposatu, ekarpenak egin.

– Lan batzordeen lana dinamizatu eta erraztu (sortuz gero).

– Elkartearen ordezkaria izan.

9.3.4.4. Funtzionamendua:

Beharraren arabera bilduko da elkartearen bazkide asanblada. Gutxienez, urte hasieran behin eta beharraren arabera egingo dira gainontzeko deialdiak.

9.4. Lan batzordeak.

9.4.1. Kideak:

Lan batzordeetako kideak izango dira gai baten inguruan hausnartzeko eta lan egiteko elkartzeko diren emakumeak, era iraunkorren.

9.4.2. Funtzionamendua:

Taldeak erabakitzen duena.

10. artikulua. Etxeko dinamizatzailea.

Elkartek Emakumeon* Etxerako dinamizatzailea kontratatuko du.

10.1. Eginkizunak:

– Etxearen zuzeneko arreta.

– Ekintzen programazioa kudeatu, eta formatzaileekin hartu-eman bermatu.

9.2.3. Funcionamiento:

Se reunirán semanalmente.

9.3. Asociación Emakumeon* Etxea de Zumaia.

9.3.1. Vocales:

Las socias de Emakumeon* Etxea serán socias de la asociación.

9.3.2. Objetivos:

– La gestión general de Zumaiaiko Emakumeon* Etxea se realiza conjuntamente con el Ayuntamiento.

– Esta gestión conjunta con el Ayuntamiento se realiza a través del modelo Sistema de Cogestión.

– Conseguir una gestión participativa abierta a las mujeres socias.

– Promover o facilitar los procesos de empoderamiento de las mujeres a través de acciones feministas.

– Incidir en las políticas de Igualdad del municipio.

– Participar en el Foro para la Igualdad.

– Construir alianzas y redes feministas.

9.3.3. Grupo motor:

Se encargará del funcionamiento de la Asociación y de la gestión de la Casa. Estará formado por varias socias de la asociación. Se encargará del seguimiento y gestión de los acuerdos elaborados y adoptados en la asamblea de socias. Además, el cumplimiento de los objetivos, la comunicación, la programación.

9.3.4. Asamblea de la Asociación:

9.3.4.1. Vocales:

Socias de la Asociación.

9.3.4.2. Funciones:

La Asamblea será el órgano que ostentará la principal capacidad de decisión de la Asociación.

9.3.4.3. Objetivos.

– Aprobar la planificación anual.

– Seguimiento de objetivos.

– Proponer cambios, aportar.

– Dinamizar y facilitar el trabajo de las comisiones de trabajo (en caso de crearse).

– Representar a la asociación.

9.3.4.4. Funcionamiento:

La asamblea de socios de la asociación se reunirá en función de la necesidad. El resto de convocatorias se realizarán, al menos, una vez al inicio del año y según la necesidad.

9.4. Comisiones de trabajo.

9.4.1. Vocales:

Serán participantes de las comisiones de trabajo las mujeres que se reúnan de forma permanente para reflexionar y trabajar sobre un tema.

9.4.2. Funcionamiento:

Lo que decida el equipo.

Artículo 10. Dinamizadora de la Casa.

La asociación contratará una dinamizadora para la Casa.

10.1. Funciones:

– Atención directa en la Casa.

– Gestionar la programación de las acciones y garantizar el contacto con las formadoras.

- Etxearen urteko memoria eta Udalarekin sinatutako hitzarrenaren zuriketa egin.
- Etxearen espazioa eskatzen dutenekin bitartekari lanak egin.
- Bazkideei informazioa bidali (Etxearenak eta berdintasun arlokoak).
- Dirulaguntzen proiektuak, memoriak eta finantza txostenak egin.
- Beste batzuk, Etxearen beharren arabera: kartelak egin, helbide elektronikoa kudeatu, Etxeko sare sozialak kudeatu, datuen jasoketa, hitzorduak kudeatu...

V. KAPITULUA

ERABILTZAILAEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

- * Etxeko espazio desberdinak erabiltzeko eskubidea, aurretik adostutako ordutegiaren eta daten arabera.
- * Elkarte edo talde batek eskatzen badu Etxearen erabilera edozein ekintza antolatzeko, arduradun bat izendatu beharko du, kudeaketa organoen aurrean erantzule izateko.
- * Etxeko erabiltzaileek onartu behar dute honako araubidea dela Etxearen funtzionamendurako araudirik nagusia.
 - Erabiltzaile guztiek kontuan izan beharko dituzte elkarbizitarrako arauak, eta Etxea ondo zaintzera behartuta daude. Nahi gabe, zerbait puskatuz edo hondatuz gero dinamizatzaileari komunikatu beharko diote.
 - Erabiltzaile guztiek Etxearen erabilera egokia egin beharko dute.
 - Etxean bertan dagoen materiala ezingo da atera bertatik, aurretik baimena eskatzen ez bada.

VI. KAPITULUA

HIZKUNTZAREN ERABILERA ETXEAN

12. artikulua. Hizkuntzaren erabilera.

Une oro, erabiltzaileen beharretara egokituko da etxearen dinamika, eta euskara lehenestuko da.

VII. KAPITULUA

ANTOLATUTAKO EKINTZA MOTAK

13. artikulua. Ekintza eta tailerren nolakotasuna.

Ekintzak eta tailerrak doakoak izango dira, irabazi asmorik gabeko jarduerak antolatuko direlako.

Ekintza batengatik kuota bat jartzen bada, Udalak finantzaz ez duen gastuarengatik izan beharko da, eta jasotako dirua ekintza hori finantzatzeko izan beharko da, eta ez onurik izateko.

Antolatzen diren ekintzetan plaza mugatuak baldin badaude elkarteko bazkideek izango dute lehenetasuna eta gainontzearen artean zozketa egingo da.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena.

Araudi honetan aurreikusi edo jaso ez den guztian, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Erreklamendu xedapenei buruzko testu bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan, eus-kadiko Toki erakundeak buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta haren Administrazio Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko

- Memoria anual de la casa y justificación del convenio firmado con el Ayuntamiento.
- Mediar con quienes demandan el espacio de la casa.
- Enviar información a las socias (de la Casa y del área de igualdad).
- Elaborar proyectos de subvenciones, memorias e informes financieros.
- Otros en función de las necesidades del Hogar: elaboración de carteles, gestión de correo electrónico, gestión de redes sociales del Hogar, recogida de datos, gestión de citas...

CAPÍTULO V

DERECHOS Y DEBERES DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 11. Derechos y obligaciones.

- * A utilizar los diferentes espacios del hogar en función del horario y fechas previamente acordadas.
- * En el caso de que una asociación o grupo solicite el uso de la Casa para la organización de cualquier actividad, deberá designar una responsable ante los órganos de gestión.
- * Las personas usuarias de la Casa deben asumir que la normativa principal de funcionamiento de la Casa es la siguiente:
 - Todas las personas usuarias deberán tener en cuenta las normas de convivencia y están obligadas a cuidar bien la Casa. En caso de rotura o deterioro involuntario deberán comunicarlo a la dinamizadora.
 - Todas las usuarias deberán hacer un uso adecuado de la Casa.
 - El material que se encuentre en la Casa no podrá salir de la misma sin previa autorización.

CAPÍTULO VI

USO DE LA LENGUA EN LA CASA

Artículo 12. Uso del lenguaje.

En todo momento, se adaptará la dinámica de la Casa a las necesidades de las usuarias y se priorizará el euskera.

CAPÍTULO VII

TIPOS DE ACCIONES ORGANIZADAS

Artículo 13. Naturaleza de las actividades y talleres.

Las actividades y talleres serán gratuitos, ya que se organizarán actividades sin ánimo de lucro.

Si se pone una cuota por una acción, debe ser por un gasto que no financia el Ayuntamiento y el dinero recibido debe ser para financiar esa acción y no para beneficiarse.

En el caso de que haya plazas limitadas en las actividades que se organicen, tendrán preferencia las socias de la asociación y se sorteará entre el resto.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera.

En todo lo no previsto ni contemplado en el presente Reglamento, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Normativas, en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euzkadi y en su Ley 39/2015, de Régimen Jurídico de las Administra-

da eta, osagarri gisa, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Azken xedapenetako bigarrena.

Erreglamendu hau indarrean jarriko da testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren, bertako 70.2 artikuluan xedatutakoa igorrita.

Zumaia, 2023ko uztailaren 24a.—Iñaki Ostolaza Esnal, alkatea. (6040)

ciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, aplicándose supletoriamente las demás normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Disposición final segunda.

El presente Reglamento entrará en vigor una vez publicado el texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, mediante remisión de lo dispuesto en el artículo 70.2 del mismo.

Zumaia, a 24 de julio de 2023.—El alcalde, Iñaki Ostolaza Esnal. (6040)